Ziburuko ikasleen argazki erakusketa

3.eko 21 neskek antolatutako argazki erakusketa kolegioan erakutsiko dugu buraso eta lagunei.

Argazki proiektua apirilan hasi zen, Patxi Lazkarai argazkilariekin, kolegioko dokumentalista, arte erakasle eta hezitzaile batekin. Lau asteazken arratsaldez aritu ginen lanean baita ere eguerdiko bazkarien ondotik. Hasteko, Jaizkibelera joan ginen itsasondoan argazkiak ateratzera, eta Patxiren laguntza eta tresna profesionalekin argazki ederrak atera genituen hango arroka hori berezi horien inguruan. Ziburu hirian ere,portu eskinean eta parte zaharrean izan genuen argazkiak ateratzeko parada. Bukatzeko, Donibanen Patxi Lazkarai argazkilariaren estudioan inprimatu genituen 21 argazkiak. Egun horietako oroitzapen bat atxikitzeko argazki album bat sortu genuen, gustukoeneko argazkiekin.

Gauza ainitz ikasi ditugu tailer honetan, adibidez photoshop erabiltzen eta argazkiak berhunkitzen. Bestalde, Patxik bere lana esplikatu digu, bere Euskal Herriari buruzko erakusketa presentatuz eta azalduz. Euskal herri eta munduko argazkilari famatu batzuen liburuak erakutsi dizkigu ere. Oso ongi pasa dugu lagunen artean. Beste gauza ainitzen artean ikusi dugu argazki on bat ateratzea ez zela hain errexa; pazientzia ugari behar dela eta sentiberatasun berezi bat.

Ekainaren 17 an gure lana aurkeztuko dugu kolegioko atarian. Buraso, lagun eta erakasleekin momentu on bat pasatzea espero dugu pintxo eta trago bat hartuz.

Hurrengo urteetan beste ikasle batzuek guk izandako zortea ukaitea eta horrelako esperientzia gozagarri bat bizitzeko parada ukaitea espero dugu.